



Elgoibarko Lanbide Heziketak 125 urte: iragana, oraina eta etorkizuna



Ikastaro hau Elgoibarko LHren 125. urteurrenaren baitan kokatzen da. Bere eraginaren ulermen sakon eta partekatua sustatzea du helburu, eta komunitatearen parte-hartze aktiboarekin haren etorkizuna bideratzea. Bere ibilbidea gogoratzeko eta balioesteko aukera da.

Uzt. 03 2025

Kod. E03-25

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2025

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 03 2025

Kokalekua

IMH CAMPUS, Azkue Auzoa 1, Elgoibar

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaro honek Elgoibarko Lanbide Heziketaren (LH) 125. urteurrena ospatzen du, bere historia, egungo eragina eta etorkizuneko proiektzioa aztertuz. LHk garapen sozioekonomiko lokalean duen eginkizunaren ulermen integrala sustatzea du helburu, bere ibilbidea, protagonistak eta egokitzeko gaitasuna baloratuz. Helburuen artean daude bere bilakaera aztertzea, funtsezko mugarriak aitortzea, komunitatearen harrotasuna bultzatzea, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko hezkuntza eta enpresa sektoreen arteko berrikuntza eta lankidetzaren sustatzea.

Helburuak

Elgoibarko LHren historia eta eboluzioa ulertzea: funtsezko gertakariak eta protagonistak identifikatzea, eta baita lan-merkatuan, teknologian, LH sisteman eta inguruko garapen sozioekonomikoan izan duen eragina ere.

LHren iraganari eta etorkizunari buruzko hausnarketa sustatzea irakasleen, ikasleen eta enpresetako ordezkarien artean, gogoeta egin dezaten lorpen historikoei, ikasitakoei eta aurrera egiten jarraitzeko egin beharreko urratsak zehaztuz.

Komunitate zentzua eta Elgoibarko LHrekiko harrotasuna sustatzea: LHrekiko estimua sustatzea aukera erakargarri gisa, bilakaeran jarraitzen baitu eta tokiko aurrerabideari laguntzen baitio, hezkuntza komunitatearen, enpresen eta herritarren arteko lotura sendotuz.

Erronkak aztertzea ingurune globalizatu eta digitalizatu batean, eta berrikuntza eta enpresekiko lankidetzaren sustatzea, lan-merkatuaren etorkizuneko beharretara egokitzeko.

Hezkuntza erakundearen eta enpresen arteko lankidetzaren sareak garatzea, LHko ikastetxeen eta tokiko enpresen arteko lankidetzaren bultzatuz.

Antolakuntza



Lankidetzaren



Programa

2025-07-03

09:00 - 09:15	Erregistroa / Registro
09:15 - 09:20	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Zuzendaritzak jarduera aurkeztea / Presentación de la jornada Ixaka Egurbide Lekube IMH Campus - Zuzendaria/Director
09:20 - 10:10	“Historia y evolución de la FP en Elgoibar: presentación de hitos clave y análisis de fases históricas” Joxean Egaña Ajuria IMH - Zuzendari ohia. Jubilatua / Jubilado Contexto, relevancia histórica y evolución de la FP en Euskadi Paulí Davila Balsera UPV/EHU - Irakaslea / Profesor
10:20 - 11:20	Mahai ingurua: “Belaunaldien arteko testigantzak (ikasle ohiak, irakasleak eta enpresaburuak) / Testimonios intergeneracionales (exalumnos, profesores y empresarios)” Jesús Mari Astigarraga Danobat Group - Jubilatua / Jubilado (Moderatzailea) Jesus Maria Bilbao Aizpiri Grupo Maherholding - Jubilatua / Jubilado José Mari Bastida Zabaleta MEKA / IMH - Jubilatua / Jubilado Andoni Garcia -Abad Etxeberria Berkoa - Zuzendaria / Director Alfredo Etxeberria Murua BIDEGI - Koordinatzaile orokorra / Coordinador general Amaia Escudero ILS - Jubilatua / Jubilada
11:20 - 11:50	Pausa café
11:50 - 12:50	“Innovación y contribuciones: Proyectos clave en la FP elgoibarresa y su impacto” Joxean Egaña Ajuria IMH - Jubilatua / Jubilado Imanol Iturria Arburua IMH - Koordinatzailea / Coordinador Mari Axun Larrañaga Zubizarreta MEKA - Jubilatua / Jubilada Agustin Agirre Andonegi MEKA - Jubilatua / Jubilado
12:50 - 13:50	“Euskal Lanbide Heziketako oraina eta etorkizuna / Presente y futuro de la Formación Profesional Vasca.” Presente y futuro de la Formación Profesional Vasca Nicolas Sagarzazu Alzua LH Sailburuordetza / Viceconsejería de FP - Director de Planificación y Organización LHren oraina eta etorkizuna. LHko zentroak eta haien ekarpena ekonomiari Mikel Navarro Arancegui Orkestra. Deusto Fundazioa
13:45 - 14:00	Itxiera Ixaka Egurbide Lekube IMH Campus - Zuzendaria / Director
13:50 - 14:00	“Puesta en común de todos los participantes” Alaitz Bastida CIFP IMH LHII - LHII Zuzendaria / Directora CIFP Jose Mari Beristain Aristondo CIFP Meka LHII - Director

Al finalizar el evento, todo aquel que quiera: podrá almorzar en la cafería del IMH. A las 15:00 hora se podrá visitar el Museo de la Máquina-Herramienta. Para confirmar tu almuerzo y visita al Museo. escríbeme a edurne@imh.eus

Zuzendaritza



Ixaka Egurbide Lekube

IMH

Ekonomia Zientzietan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Lehiakortasun Enpresarialerako Kudeaketa Masterra (UPV/EHU) eta Pertsonen Garapen eta Zuzendaritza Estrategikoko Masterra (Mondragon Unibertsitatea). Gaur egun eta 2016tik IMHko Zuzendari Kudeatzailea da. Hainbat proiektu nazional eta nazioartekotan parte hartu du, bereziki Lanbide Heziketa Dualarekin eta horren Europako erakunde eta zentroetara transferentziarekin lotutakoetan. Horrez gain, fabrikazio aurreratua eta digitalizazioa sustatzen lan egin du, pertsonak eta enpresak Industria 5.0ra igarotzeko trantsizioan laguntzeko helburuarekin. Halaber, PYMESentzat berrikuntza-sistema sustatu eta Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzen dihardu.



Joxean Egaña Ajuria

ZEG

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean. LHko irakaslea FOL espezialitatean, eta hezkuntza eta curriculum-berrikuntzako esperientzia askoren koordinatzailea. IMH proiektuaren sorreran parte-hartzailea eta bere gauzatzean Administrazio Zuzendari gisa sustapen batzordean. 1988 - 2000 IMHko zuzendaria 2000 - 2016, bai eta Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Plannen koordinatzailea ere. Prestakuntza-beharrak aztertzeke hainbat ikerketatan parte-hartzailea, Italiako, Frantziako, Alemaniako eta Japoniako lan-eremuko ikerketekin. Kudeaketa-zentroen eta heziketa dualaren inguruko argitalpenetan parte-hartzailea. Laguntza teknikorako hainbat proiekturen koordinatzailea Mexikon, Kolonbian eta Txinan. Jardunaldi eta kongresuetan parte-hartzailea, LH arloko komunikazioekin. LH sistemak aztertzen dituzten ikerketetan parte-hartzailea, Orquestrarekin, Nafarroa, Errioxa, Gaztela eta Leongo eta Gaztela-Mantzako sistemak aztertuz, Bankia Dualizaren eskutik 2016 - 2020. Erretiratu aktiboa, hainbat gizarte-erakundetan parte hartzen du: Ikasten, Arbil, Geltoki Aterpetxea, Elgoibarko 125 LH batzordea.

Irakasleak



Agustin Agirre Andonegi

Lehen ikaslea eta ondoren automozioko irakaslea Elgoibarko Lanbide Heziketan Nire ibilbide profesionala Lanbide Heziketari lotuta dago 1985etik orain dela gutxi erretiroa hartu arte, irakaskuntza eta proiektuetako lidergoa eta zuzendaritzako hainbat ardura uztartuz. 2006az geroztik, TKNIKAko Ikaskuntzen eta Errendimendu Handiaren Arloko zuzendaria eta iTlent-eko zuzendari exekutiboa, Euskadiko LHren sustapenean lagunduz, bai estatuan, bai nazioartean. Lanbide Heziketako ikastetxeetako arduradunentzako zuzendaritza-garapenaren arloko proiektuak gidatu ditut. Ingurunearekiko lotura indartzeko ekimenak ere zuzendu ditut, baita ikaskuntzara bideratutako ekipamendu eta espazioen diseinua ere. Irakasleentzako prestakuntza-programa ugari koordinatu ditut, eta, 2013tik, ETHAZI ikaskuntza-eredu berriaren ezarpena eta egokitzapena gidatu dut Euskadiko LHn.



Jesús Mari Astigarraga

Jesús Mari Astigarraga Elgoibar, 1951-12-29 Ikasketak • Eskola publikoa, Elgoibar • Pilar Ikastetxea, Elgoibar • Sigma Eskola, Elgoibar • La Mecánica, Elgoibar • Industria-maisu ikasketak, Mondragon Unibertsitatea, Arrasate Lan ibilbidea Danobat S.Coop. (1970-2012) Lehendakaria (2000-2012)



Alaitz Bastida

CIFP IMH LHII

Ikasketei dagokionez: Ingeniaritza Tekniko Industriala MUn eta Ingeniaritza Industriala Ecole Centrale de Nantes-en. Enpresan munduan: Estarta Rectifikadora-ko I+Dn eta Industrial GOLeko bulego teknikoan. Hezkuntza arloan irakasle: Mondragon Unibertsitatean ingeniaritzan eta Lanbide Heziketan, eta Goierri Eskolan eta IMHn Lanbide Heziketan. IMH Ikastetxe Integratuan, berrikuntza zuzendari gisa aritua 2020-22 artean eta gaur egun, zuzendari exekutiboa.



José Mari Bastida Zabaleta

José María Bastida Zabaleta Elgoibar, 1944 Ikasketak • Industria Peritua, EPI - Bilbo Lanbidea • Marrazketa Teknikoko irakaslea Lan ibilbidea • Elgoibarko LH Zentroa - Meka: 1963-1991 eta 1997-2004 • Makina Erremintaren Institutua: 1991-1997 Betetako karguak • Zuzendaria, Elgoibarko LH Zentroa - Meka: 1974-1986 • Ikasketa-burua eta beste hainbat kargu



Jose Mari Beristain Aristondo

JOSE MARI BERISTAIN ARISTONDO 07/2020tik gaur arte: MEKA LHIIko zuzendaria 07/2009 - 06/2020: GIGA programan parte-hartzailea, ondoren Tkgune 07/2003 - 06/2008: Administratzailea MEKA LHII zentroan eta MEKA LHIIko Albitzuri zentroaren sorreran parte hartu zuen 07/1999 - 06/2002: Automozio saileko burua IFPS Elgoibarren, gaur egun MEKA LHII 10/1994tik gaur egun arte: Automozio Teknikako Irakaslea Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuan, gaur egun MEKA LHII izenez ezagutzen dena



Jesus Maria Bilbao Aizpiri

1940an jaio zen Elgoibarren. 1956an hasi zuen bere ibilbide profesionala Danobaten marrazkilari ikasle gisa, Lanbide Eskolan ikasketak eginez. Bertan, Bulego Teknikoko burua, gerentea eta zuzendari komertziala izan zen, kooperatiba bihurtzean eta 1969ko fusioan parte hartuz. 1968 eta 1972 artean, Caja Laboraleko Kontseilu Errektoreko kide izan zen, eta 1974an Maherholding Taldearen sortzaileetako bat, hainbat enpresatan zuzendaritza-lanak eginez. 1976 eta 1978 artean, Einkor eta Ekor enpresari mugimenduak bultzatu zituen, gero Adegin integratu zirenak. 1976 eta 1980 artean Elgoibarko Ikastolako lehendakaria izan zen, eta 1982tik aurrera Tekniker-eko zuzendaritzan aritu zen. 1987an Fatronik sortu zuen eta 1997tik aurrera lehendakari izan zen. 1993an Goratu sortzen lagundu zuen eta 2001 arte zuzendu zuen. 1994-1997 artean Adegiko gobernu organoetan eta 1997-2001 artean IMHn parte hartu zuen. 2005ean erretiroa hartu zuen eta 2012ra arte IMHrekin lankidetzan aritu zen. 2010ean Anateusk elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Gure Balioak (2012) eta José M^a Korta (2016) sariak jaso zituen. Kooperatibismoaren, ekintzailetzaren eta osasun sisteman askatasunaren aldeko defendatzaile, ezagutza ekintzaren eta etengabeko prestakuntzaren bid



Paulí Davila Balsera

EHU

Garaian Hezkuntzaren Historia eta Konparazio Azterlanetarako Taldeko ikertzaile nagusia izan da (<https://www.ehu.eus/eu/web/garaian/home>), Eusko Jaurlaritzak aitortua, eta Ministerioak zein beste erakunde publiko eta pribatuek finantzatutako ikerketa-proiektu ugariaren arduraduna. Bere ikerketaido nagusiak hauek dira: haurtzaroaren eskubideak ikuspegi historiko eta hezitzailetik, Euskal Herriko hezkuntzaren historia eta Hezkuntza-ondare historikoa. Hainbat argitalpen egin ditu, bai nazio mailako zein nazioarteko aldizkarietan. Lanbide Heziketari buruzko argitalpenen artean, honako obra hau nabarmendu daiteke: Las escuelas de artes y oficios y el proceso de modernización en el País Vasco, 1879-1929, Evolución del modelo vasco de formación profesional eta Innovation in the Basque vocational training model, Hilario Murua koordinatzaile dituen liburuak, baita artikulu, komunikazio eta aurkezpen desberdinak ere. Gaur egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Museoaren zuzendaria da (<https://www.ehu.eus/eu/web/museoeducacion>) eta Cabás. Revista Internacional sobre el patrimonio histórico educativo aldizkariaren zuzendaria ere bada.



Joxean Egaña Ajuria

ZEG

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean. LHko irakaslea FOL espezialitatean, eta hezkuntza eta curriculum-berrikuntzako esperientzia askoren koordinatzailea. IMH proiektuaren sorreran parte-hartzailea eta bere gauzatzean Administrazio Zuzendari gisa sustapen batzordean. 1988 - 2000 IMHko zuzendaria 2000 - 2016, bai eta Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Plannen koordinatzailea ere. Prestakuntza-beharrak aztertze hainbat ikerketatan parte-hartzailea, Italiako, Frantziako, Alemaniako eta Japoniako lan-eremuko ikerketekin. Kudeaketa-zentroen eta heziketa dualaren inguruko argitalpenetan parte-hartzailea. Laguntza teknikorako hainbat proiekturen koordinatzailea Mexikon, Kolonbian eta Txinan. Jardunaldi eta kongresuetan parte-hartzailea, LH arloko komunikazioekin. LH sistemak aztertzen dituzten ikerketetan parte-hartzailea, Orquestrarekin, Nafarroa, Errioxa, Gaztela eta Leongo eta Gaztela-Mantxako sistemak aztertuz, Bankia Dualizaren eskutik 2016 - 2020. Erretiratu aktiboa, hainbat gizarte-erakundetan parte hartzen du: Ikasten, Arbil, Geltoki Aterpetxea, Elgoibarko 125 LH batzordea.



Ixaka Egurbide Lekube

IMH

Ekonomia Zientzietan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Lehiakortasun Enpresarialerako Kudeaketa Masterra (UPV/EHU) eta Pertsonen Garapen eta Zuzendaritza Estrategikoko Masterra (Mondragon Unibertsitatea). Gaur egun eta 2016tik IMHko Zuzendari Kudeatzailea da. Hainbat proiektu nazional eta nazioartekotan parte hartu du, bereziki Lanbide Heziketa Dualarekin eta horren Europako erakunde eta zentroetara transferentziarekin lotutakoetan. Horrez gain, fabrikazio aurreratua eta digitalizazioa sustatzen lan egin du, pertsonak eta enpresak Industria 5.0ra igarotzeko trantsizioan laguntzeko helburuarekin. Halaber, PYMESentzat berrikuntza-sistema sustatu eta Lanbide Heziketaren eta Unibertsitatearen arteko zubiak eraikitzen dihardu.



Amaia Escudero

Amaia Escudero Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuko ikasle ohia da, bertan Enpresen Kudeaketa eta Administrazioan ikasi zuelarik, eta enpresa-munduarekin eta ekintzaitzarekin lotutako hainbat prestakuntza-programatan parte hartu zuelarik. Bere ibilbide profesionalean zehar, etengabeko prestakuntza uztartu du arlo ezberdinetan, hala nola telefono bidezko marketina, enpresa-zuzendaritza eta ofimatika, kudeaketa eta administrazio arloetan esperientzia sendoa izanik. Bai sektore publikoan —Gipuzkoako Foru Aldundian, kasu— eta bai sektore pribatuan lan egin du, azpimarratzekoa delarik Industry Language Services (ILS) enpresan izan duen bazkide eta zuzendari rola. Enpresa hori Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan (IMH) kokatuta dago, eta bertan jardun zuen lanean 2017an erretiratu zen arte. Amaia DEITEL, C.B. enpresaren sortzaileetako bat ere izan zen, 1994an sortua Elgoibarko Lanbide Heziketako Institutuko ekintzaitza-programari esker. Horrek agerian uzten du Lanbide Heziketarekin eta tokiko ekintzaitza-sarearekin duen lotura estua. Bere ibilbideak erakusten du prestakuntza, berrikuntza eta garapen profesionalarekiko konpromiso jarraitua, eta lanbide-bizitzan zehar Lanbide Heziketak bide anitz eta aberasgarriak ireki d



Alfredo Etxeberria Murua

Alfredo Etxeberria Murua Elgoibarren jaioa 1966. urtean, gaur egun Bidegi - Gipuzkuko

azpiegituretarako agentzian egiten du lan zuzendaritza arduetan. Bi hamarkadatan zehar makina erraminta arloan, nagusiki DyE eta Ona Electroerosion enpresetan lan egin ostean, 2007 - 2015 urteen bitartean Elgoibarko alkate kargua izan nuen. Jarraian Bidegi kudeatzeko proposamena eta izendapena jaso nuen eta hortan dihardut gaur egun. Lan mundura salto egin aurretik Lanbide Heziketan egin nituen ikasketak eta jarraian bi urte igaro nituen Ingalaterran, Leicesterko Moss Machine Tool enpresan lanean, eta aldi berean, hizkuntza ikasketak garatzen. Esperientzia eta saiakuntza oso emankorra izan zen atzerriko egonaldia, nagusiki amesten nuen ogibidea lortzeko.



Andoni Garcia -Abad Etxeberria

Elgoibarko Lanbide Heziketako Eskolan FP1 eta FP2ko 5 urteko ikasketak egin ondoren, 1988an hasi nintzen lanean AKOIN S.A. enpresako Bulego Teknikoan, Elgoibarren bertan kokatutako Makina Erreminta Berezien fabrikatzailea. 14 urtez makina diseinuan aritu ondoren, 9 urtez izan nintzen Muntaketa eta SATeko arduraduna. 2011n, KONDIA enpresa elgoibartarrak erosi zuen AKOIN, eta hasieran barne-koordinazio lanetan jardun nuen, eta ondoren Talde Komertzialera batu nintzen. 2016an KONDIA itxi ondoren, BERKOA S.COOP. kooperatiba sortu genuen, baita ere Makina Berezien fabrikatzaile. Lehen 3 urteetan muntaketa teknikari eta komertzial gisa aritu nintzen lanean. Gaur egun, 6 urte daramatzat Zuzendari Gerente karguan.



Imanol Iturria Arburua

Imanol Iturria Arburua • Adina: 57 urte • Oinarrizko prestakuntza: FP2 Delineazioa. Ingeniaritza tekniko mekanikoa • Prestakuntza osagarria: ◦ Kudeaketa arloan (ISO9000, EFQM, ALP,...) ◦ Arlo pedagogikoa (metodologia aktiboak, LMS sistemak: Moodle,...) ◦ Fabrikazio eta metrologia arlo teknikoetan: CAD-CAM, CNC, Koordenatu bidezko neurketa-makinak,... • LHko esperientzia: ◦ LHko irakaslea fabrikazio mekanikoko arloan 1989tik (IMH y MU) ◦ IMHn ETHAZIKO koordinatzailea Produzioaren Programazioko zikloan (2004-2016, 2 020-2025) (2004-2016, 2020-2025) ◦ IMHko Kalitate kudeaketako sistemaren arduraduna (1998-2006) ◦ IMHko ikasketa-burua 2006-2012 ◦ CIFP IMHLHII Zuzendaria (2016-2019) ◦ CIFP IMHLHII Estrategia-zuzendaria (2020-2025)



Mari Axun Larrañaga Zubizarreta

Jubilatua

Profesional esperientzia zabala duen pertsona, zuzendaritzan, irakaskuntzan eta Lanbide Heziketako proiektuak kudeatzen. Meka Lanbide Eskolan 16 urte igaro ditut Zuzendari eta Subzuzendari lanetan, taldeak gidatuz, enprekin eta erakundeekin koordinatuz, eta hezkuntza etengabeko hobekuntza bultzatuz. Sailburua eta irakasle gisa, 13 urte eman ditut Meka eta Miguel Altuna Institutuetan, metodologia berritzaileak garatuz eta klaseak emanez. Tknikan, 9 urtez koordinatu nuen Urratsbat proiektua, Euskadiko Lanbide Heziketako zentroetan ekintzailatza bultzatuz. Enpresa Zientzietan lizentziatua, lidergoa, estrategia-planifikazioa eta proiektuen kudeaketa maila handia duen pertsona. Euskara eta gaztelania hitz egiten ditut, eta ingelesa eta frantsesa ere ulertzen ditut. Pertsonen inguruan lan egitea, ezagutza partekatzea eta besteen garapen profesionala laguntzea gustatzen zait. Emaitzetara orientatuta, konpromisoarekin eta etorkizuneko ikuspegiarekin, motibatuta jarraitzen dut erronka berriei aurre egiteko eta ikasten jarraitzeko.



Mikel Navarro Arancegui

Mikel Navarro Arancegui Gaur egun Deustuko Unibertsitateko katedradun emeritua da, eta Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ikertzaile elkartua. Bere ikerketa nagusiak industriako lehiakortasunari eta berrikuntza-sistemak eta -estrategiei, lanbide-heziketari eta, berrikiago, ongizateari eta garapen jasangarriari buruzkoak izan dira. Arlo horietan, hogeitabat liburu eta berrogeita hamar artikulu eta zientzia-lankidetzak baino gehiago argitaratu ditu, nazional zein nazioartekoak. Iraganeko ibilbidean, hainbat zuzendaritza-kargu bete ditu ESTeko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean eta Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren barruan. Halaber, Europako Batzordeko aholkulari izan da Espezializazio Adimentsuko Estrategien arloan.



Nicolas Sagarzazu Alzua

Nicolás Sagarzazu Alzua Plangintza eta Antolakuntzako zuzendaria. Hezkuntza Saila TREBAKUNTZA Elektronikako ingeniari teknikoa. 1985eko urria. Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola, Donostia. Elektronikako teknikari aditua. 1981eko ekaina. I.E.F.P.S. Don Bosco G.L.H.B.I. Hizkuntzak: euskara (2. HE), frantsesa (A2) KARRERA PROFESIONALA Taldeko burua Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren diseinuan, zehazki INCUAL (Kualifikazioen Institutu Nazionala) Instalazioa eta Mantentzea familian, IVAC-KEIk proposatuta. 2003ko irailtik 2007ko ekainera arte. Gaur egun Don Bosco LHII (Don Bosco Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua) den zentroko zuzendaria. 2005eko uztailetik 2016ko abendura arte EUSKALITeko ebaluatzaileen taldeko kidea. Kudeaketa-kalitatearen Euskal Sariak jasotzeko hautagaiak ziren bi erakunderen ebaluazioa egin nuen 2008 eta 2009 urteetan. Euskalitek kudeatzen du sari hori IKASLAN GIPUZKOAKo (Lanbide Heziketako Institutu Publikoen Elkarte) presidentea. 2013ko irailtik 2016ko abendura arte Dekanordea Gipuzkoako COPITIn

(Gipuzkoako Industria Ingeniaritzako Gradudunen eta Ingeniari Tekniko Industrialen eta Peritu Industrialen Elkargo Ofiziala). 2014ko uztailetik 2016ko maiatzera arte.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2025-07-03 ARTE

Orokorra

30,00 EUR

[Elgoibarko LHko irakasleak](#)

0 EUR

Kokalekua

IMH CAMPUS, Azkue Auzoa 1, Elgoibar

Gipuzkoa